

DATORRENA

Klima politiken aurkako
laugarren narratiba **AIORA ZABALA > 3**

EH DIGITALA:

Turismo bideratua,
erauzitako lurraldea **GORKA JULIO > 18**

2026ko abuztuaren 22a | XX. urtea • 992. zenbakia
0,75 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



EUSKAL HERRIA OINEZ, BERE ERTZAK EZAGUTUZ

GOIERRIKO MENDIZALE BETERANOEK «EUSKAL HERRIKO MUGAK OINEZ»
LIBURUA ARGITARATU DUTE, GURE HERRIKO MAPAREN PERIMETROA PATXADAZ
ZEHARKATZEKO PROPOSAMEN INTERESGARRIA. **> 10** Andoni CANELLADA | FOKU



Jorge Freytter:

«Kolonbiako gizartearen sektore
handi bat kontserbadorea eta
kontrainsurjentea da» 04

**Euskal Herriko mugak oinez,
Goierriko Mendizale Beteranoen
eskutik** 10

**Hik jai eta nik lan: Lekeitioko
Patxon Taberna, giro euskalduna
Karraspio hondartzaren
magalean** 14

**Euskal Herria Digitala: Turismo
bideratua, erauzitako lurraldea** 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Aiora Zabala:** Klima politiken
aurkako laugarren narratiba

08 **Ula Iruretagoiena Busturia:**
Udako postalak

09 **Lur Albizu Etxetxipia:** Beroa

13 **Amaia Ballesteros**

16 **Fernando Trebol Unzue:**
Garunaren psikobiologia,
oinarrizkoa buru osasunerako

17 **Mijo Lizarzaburu:** Jaietako
gorputzen politikak

21 **Maidar Iantzi:** Azkena, beraz
lehena

21 **Xabier Mikel Errekondo:**
Itsututa

22 **Olatz Arbelaitz Gallego:**
Kriptografia postkuantikoa eta
kuantikoa, gauza bera ote?



{ datorrena } **Aiora ZABALA**

Klima politiken aurkako laugarren narratiba

Gizarte globalizatuak ekosistemekin duen lehiatik alendu eta haiekin sinbiosian –elkar zaintzen– bizitzeak klima eta natura larrialdia leuntzen lagunduko digu, aldaketetara hobeto egokituz: erregai fosilak ordezkatzuz, energia gutxiago eta garbiago erabiliz, edota zabor plastikoa eta fauna bereizi gabe hiltzen duten pestizidak alternatiba burutsuekin murriztuz, adibidez.

Baina oreka hori lortzeko politiken aurkako posizioak indartsuak eta iraunkorrek dira, nahiz eta haien narratibak eraldatuz doazen. Aurkakotasun hori adierazten dutenak eskuin muturrekoak, kontserbadoreak, indibidualistak edo neoliberalak izan ohi dira. Hainbat izen har ditzakete. Ez dira berdin-berdinak, baina ezaugarri bat dute amankomunean: aldaketen aurrean egokitzeko duten erresistentzia. Berdin dio zein aldaketa den: emakumeek eskubideak lortzea, kultura desberdinetako bizilagunak etortzea, edo uraren kultura berria hedatzea.

Politika horien aurkarien narratibek hiru forma hartu dituzte 1990eko hamarkadatik hona. Narratiba bakoi-tzak aurrekoa ordezkatu du gehienbat, pertsona gutxi batzuek hasierako argudioak defendatzen tematuta jarraitzen duten arren. Klimaren gaiarekin irudikatuko ditut hemen.

Lehen narratiba: «Klima aldaketarik ez dago». Halakorik ez dela gertatzen ari. Muturreko eguraldi gertaerak betidanik gertatu direla. Posizio horri eustea nolabait posible zen 2000ko hamarkadaren hasierara arte, Mediterraneotik iparraldera dauden herrialdeetan ez baitzen aldaketa horrenbeste nabaritzen egunerokoan. Baina aldaketak gero eta ageriagoak direnez, klimaren aldaketa ezin da ukatu.

Orduan bigarren narratiba etorri zen: «Klima aldaketa ez da gizakion errua». Klima betidanik aldatu izan dela esanez, argudio pseudo-esoteriko edo pseudo-zientifikoekin defendatzen saiatu ziren batzuk. Kimika atmosferikoaren azterketak eta neurketek argi utzi dute narratiba horrek ez duela funtsik. Klima aldaketa naturala badago, bai, baina abiadura honekin eta isurtzen diren berotegi efektuko gasen kantitateak kontuan izanda, gizakiaren jarduerak eragindakoa dela garbi dago. Argudio

horrek ez zuen asko iraun, nahiz eta eskuin muturreko motorrek oraindik ere horri helden dioten, desesperazioan edo anabasa sortu nahian.

Hirugarren narratiba azken bost-hamar urteetan indartu da, gehiegizko kostu ekonomikoarena: «Klima aldaketa arintzeko politikak garestiegiak dira». Gehiengoa ados dago, orain bai, klima aldatzen ari dela eta gizakiaren jarduerak eragindakoa dela. Baina hirugarren narratiba horren arabera, berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko inbertsioa jasanezina da. Klima larrialdiak berak dakartzan kostuen aurrean beste aldera begiratzen du narratiba horrek. Ondorioz, sistema ekonomiko nagusia, metatze kapitalistarena, kontserbatu nahian, ez ditu kontuan hartzen planetarentzako eta pertsonentzako kostuak. Beste kalte guztiei ez ikusia eginda, bai, argudia daiteke garestiegiak direla klima eta natura politikak.

Baina klima larrialdiaren kostuak handitzen ikusi ahal (beroaldiekin, lehorteeekin, uholdeekin eta abarrekin), hirugarren narratiba hori ere indargabetuko da. Gehienentzat argi geratuko da etxeko teilatua garaiz konpontzea merkeagoa zela (dela), itoginen ondorioz eroritako etxea berreraikitzea baino. Dirua egon, badago. Akaso ez da ongi banatzen edo bideratzen. Pentsa zenbaterainokoa den gastu militarra gaur egun; materialak, mikrotxipak eta energia xahutu eta suntsitzeko, gizon batzuen handinahi mugagabea asetzen saiatzeko besterik ez.

Garestiaren narratiba indargabetzen denean, zein izango da laugarren narratiba? Izan, izango da; natura politiken aurkaritza ez baita hutsalduko. Zein izango den asmatzera ausartzen naiz. Honelakoa izan daiteke: «Ingurumen arloetan lan egiten duzuenok bazenekiten klima aldaketa goiz arintzea merkeagoa zela, larrialdiaren kostuei aurre egitea baino; beraz, zergatik ez zenuten ezer egin?». Ogibide berdeen porrota argudiatuko dute, ingurumen arloetan lan egiten dugunon errua dela esanez. «Ez zenuten nahikoa egin, ez zenuten jakin nola konpondu». Ingeniaritza arazo bat balitz bezala. Zubi bat eraikitzen saiatu eta funtsezko akats baten ondorioz lortu ez balitz bezala. Fundamentuz lan egin ez bagenu bezala. Agian zuk beste ideiak dituzu eta gogoz entzungo nituzke. Argudio horien aurrean zer esan pentsatzen hasi beharko dugu. •

«Kolonbiako gizartearen sektore handi bat kontserbadorea eta kontrainsurjentea da»

Kolonbiako Estatuak hil zuen Jorge Adolfo Freytter irakaslearen kasuak 25 urte bete ditu, baina haren inguruko egia, justizia eta erreparazio eskaerek bizirik diraute. Denbora honetan, Freytter Elkarteak auziaren aitortza eta jarraipen juridikoa sustatu ditu, memoria historikoaren alde lan egin du eta Kolonbiako paramilitarismoaren, Estatuaren indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen aurkako ahotsa izan da. Urteurrenaren harira, elkarteko koordinatzailearekin eta Jorge Adolfo Freyteren semearekin hitz egin dugu kasuaren bilakaeraz, lortutako aurrerapenez eta oraindik zabalik dauden eskaerez; bai eta Kolonbiako egoera politikoaz, narkoparamilitarismoaz eta datozen urteetako erronkez ere.

25 urte igaro dira zure aitaren kasutik, zer aldatu da ordu-tik?

Egia, bermeak, berriro ez gertatzea eta duintasuna exijitzen jarraitzen dugu, Estatuak eragindako krimen horiengatik. Interesgarria izan da euskal gizarteak Kolonbiako Estatuak hildako irakasle baten kasua ezagutaraztea lortu dugulako, eta, horren bidez, elkartasun politiko eta akademikoa ere sortu delako. Euskal Herriko Unibertsitateak, 2014an, “Presente y futuro de Colombia en tiempos de esperanza” liburua argitaratu zuen. Garai hartan, Kolonbian bake prozesu baten aldeko apustua egin eta prozesu hori abian jartzen ari zen, eta hemen ere euskal gatazkaren



JORGE FREYTTER

KOLONBIAR AKTIBISTA

Jorge Freytter Elkartearen koordinatzaile orokorrarekin bildu gara. Era berean, elkarteari izena ematen dion eraildako irakaslearen semea da. Kolonbiako iraganaz, orainaz eta etorkizunaz mintzatu gara.

Markel DE BILBAO CATEDIANO

konponbidearen testuingurua bizi zen. Guretzat oso garrantzitsua izan zen, unibertsitateak irakaslearen hilketarekin lotutako paramilitarismoaren eta Estatuaren agenteen aurkako salaketa eta exigentzia horri babesa eta laguntza ematea erabakitzea: zer egiten du unibertsitate batek Euskal Herriatik kanpo jatorri kolonbiarra duen irakasle baten hilketaren aurrean?

Geroago, beste mugarri garrantzitsu bat izan da Euskal Legebiltzarrean kasuari buruz izan dugun agerraldia eta jarraipena. Horrek Giza Eskubideen Batzordearen aldetik kasuaren jarraipena eta monitorizazioa bultzatzen lagundu du, eta presio zuzena eragin du Kolonbiako Fiskaltzaren eta Estatuaren Defentsa Juridikorako Agentzia Nazionalaren aurrean. Eta azkenaldian, beste mugarri juridiko eta politiko bat ere izan da, kasua Bake Jurisdikzio Berezia- ren O8 makrokasuaren parte baita, eta, era berean, Kolonbiako Prokuradoretzak ere Estatuaren agenteek kasuan izan zuten inplikazioaren jarraipen zehatzagoa egitea lortu dugu.

Fiskaltzari eta Kolonbiako Gobernuari Leonel Sanchez Montenegro koronelaren atxiloteta eskatzen ari gara. Kolonbiako Poliziako koronela da, Gaula unitateari atxikia; unitate hori Karibe eskualdeko eta Antioquia departamenduko operazio estrajudizialetan eta egitura paramilitarrekin harremanetan inplikaturik egon da. Militar hori nor den eta tortura lekua non dagoen jakitea lortu dugu. Hori oso garrantzitsua izan da, eta euskal erakundeek laguntzari esker izan da posible.

Helburuei dagokienez, bilakaera bat egon da elkartearen beraren barruan? Hasieran kasuan bertan zegoen jarrita arreta handiagoa, aitortua izan zedin; orain beste helburu batzuetara ere zabaltzen da?

Bai. Auzibide estrategikoaren ibilbidea Freytter irakaslearen kasua izan da, eta horri esker memoria historikoaren proiektu hau eraiki ahal izan dugu. Baina ibilbide horren barruan Estatuak eta Kolonbiako Gobernuak bete gabeko konpromisoak ere badaude.

Dagoeneko 25 urte igaro dira krimen horretatik, eta 25. urteurren honen esparruan hainbat gauza eskatzen ari gaitzaizkio Kolonbiako Gobernuari: biltegia entregatzea eta tortura leku horretan sakoneko aditu azterketa egitea, izan ere, uste dugu bertan giza aztarnak edo desagertutako pertsonak egon daitezkeela; era berean, han zenbat pertsona torturatu eta desagerrarazi zituzten zehaztu dadila nahi dugu, eta Barranquillako tortura gune horri kautelazko neurriak ezartzea.

Zeintzuk dira une honetan elkartearen ardatz nagusiak?

Elkarteak zeregin garrantzitsua izan du gizarte mugimenduei, biktimei, esparru akademikoari eta paramilitarismoari buruz egiten ari diren ikerketei laguntzen. Ahots kritikoa izan da Gustavo Petroren Gobernuaren barruan.

Horrek ez du esan nahi Gobernuari laguntzen ez zaionik, baina uste genuen, Gobernuaren agenda bat izateaz harago, gure agenda propioa eta autonomoa izan behar genuela, Kolonbiako Gobernuaren barruan ordezkariarik ez zuten



Argazkiak: Marisol RAMIREZ | FOKU

ezkerreko sektore sozial eta politikoei ahotsa emateko. Hori izan da Petroren Gobernuaren lau urte hauetan egin dugun apustueta bat.

Badago alderik hilketak talde paramilitarren ekintzen ondoriozkoak badira edo Estatuaren beraren ekintzen ondoriozkoak badira?

Talde paramilitarren erantzukizuna Kolonbiako Estatuak hartu behar du bere gain. Estatuak sortu zituen, Israelekin eta AEBekin, nazioarteko aliantza baten bidez, “barneko etsaiaren doktrina” ideologiakoaren aterkipean. Egitura paramilitarrak komunismoaren aurkako nazioarteko borrokaren testuinguruan sortu ziren.

Kolonbian, une horretan zegoen gerraren eta Alderdi Liberalaren eta Alderdi Kontserba-

ELKARTEA

Kolonbiako unibertsitate publikoetan gertatutako erasoei erantzuteko sortu zen elkarte 2012ko maiatzaren 13an. Egun, helburu berrituetan jarraitzen du lanean.



dorearen arteko liskarren ondorioz, gerrillak sortu ziren, baina lehenago ere bazegoen borroka antikomunista bat eta baziren Gobernuak eta Estatuako egiturek sortutako aparatua, oposizio politikoa eta nekazariak nahiz herrialdeko erresistentzia guneak jazartzeko.

Talde paramilitarren esparruan, ekintzak eskuin muturraren eta AEBren proiektu politiko bati lotuta zeuden, Kolonbian oposizio politikoa eta herri erresistentzia oro ezabatzeke. Herrialdeko kultura eta pentsamenduko adierazpen disidente oro hiltzeko politika izan zen.

Gerrillek, historikoki, jarrera politikoa izan dute eta, matxinadarako eskubidearen premisapean, sektore horietako asko mobilizatu eta landa eremura joan ziren borrokatzera. Para-

militarismoaren erantzukizuna Estatuarena da. Insurgentzia, berriz, nekazarien antolakuntza modu eta apustu politiko gisa sortu zen. Aldiz, talde paramilitarrak beste proiektu baten parte izan ziren: korporatiboa, kapitalista eta nazioarteko faxismoari lotutakoa. Hori da Bake Jurisdikzio Bereziaren azken epaiek frogatu dutena: egitura horiek Estatuaren konplizitatearekin egindako zuzeneko urraketak erakusten dituzte.

Narkoparamilitarismoaz hitz egitean, eskuinarekin eta Uriberen Gobernuarekin lotu duzu; baina De la Espriellak berak hauteskunde kanpainan Petro eta ezkerreko Gobernuekin lotu du. Zein rol du narkoparamilitarismoak Kolonbian?

Narkoparamilitarismoa aldatu egin da. Garai batean, Pablo Escobar, Rodriguez Orejuela, Ochoa eta beste narko-familia batzuk aritu ziren, baina Castaño anaiek egitura paramilitar guztiak batu zituzten. Carlos Castaño, buruzagirik esanguratsuenak, mertzenario israeldar eta estatubatuarren babesarekin, ikuspegi hori eta paramilitarismoaren ondare politiko guztia uztartu zituen.

Agenda politiko hori da gaur egun Abelardo de la Espriellak garatzen duena. Jada esan dugu Uribe, Duque eta Santos gobernuetan ere hala jardun zela: Santa Fe de Ralitoko prozesuan, buruzagi paramilitar eta parapolitikari askok aliantza narkopolitiko-paramilitarraren emaitza bilatzen zuten, hau da, boterea hartzea. Hori Uriberen Gobernuaren Se-

natuaren %35 haien esku ze-goela aitortu zutenean ikusi zen. Eta gaur egun, De la Espriellaren diskurtsoarekin, hiri segurtasunerako eredu berri bat proposatzen duenez, “barneko etsaiaren doktrina” osoa berpizten da. Indar militarrek mantendu nahi ditu, ez giza eskubideen ikuspegiarekin, baizik eta kontrainsurjentziaren ikuspegiarekin.

LGTBI komunitateak, komunitate beltzak, askapen teologia sustatzen duten oinarrizko komunitate katolikoak eta disidentzia politikoak helburu militar edo politiko izango lirateke.

Ahalmena al du Gobernuak narkoparamilitarismoaren aurka egiteko?

Bai, harremanak eta kontaktuak dituztelako. Haien egungo aholkulari asko paramilitarismoarekin harreman zuzena duten familia aberatsetako kideak dira, eta horien artean daude Char etxea –Barranquillako Char familia–, Amin etxea eta De la Espriella etxea. Herrialdeko paramilitarismoa ideologikoki eta politikoki justifikatzen lagundu duten pertsonak daude.

Bazuen Petroren Gobernuak auzi honetan zer edo zer aldatzeko gaitasunik?

Bai. Diskurtsoan ikusten da hori. Petrok elkarriketa sustatzen zuen, eta elkarriketa horrek negoziazio mahaiak ireki zituen. Kontraesan guztiekin, Gobernuaren hurbilketa izan zen talde paramilitar horietara, herrialdeari «guztizko bakearen» proposamena aurkezteko eta “barneko etsaiaren doktrina” bideratzeko. Adibidez, Kolonbiako Poliziak ES-MAD du, istiluen aurkako eskudroi mugikorra. Petroren



Gobernua gizarte erakundee-kin hitz egiten ari zen horri buelta bat emateko; izena aldatu zioten, baina prozesu oso luzea da, paramilitarismoaren eta kontrainsurjentziaren egitura ideologikoak oso txertatuta baitaude indar militarretan.

Horregatik Petrok etengabe aldatzen zituen goi mailako buruzagi militarrek, asko “faltso positibo”-etan (exekuzio estrajudizialak) eta giza eskubideen urraketetan inplikaturik baitaude. Aitzitik, De la Espriellaren Gobernuarekin ez da ho-

«Cepedari beste komunitate batzuetara gehiago hurbiltzea falta izan zaio. Adibidez, ez zen nahikoa izan Cepeda Madrilera joatea Europako kolonbiar guztiekin biltzera»

rrela izango. Kolonbiako etorkizuneko kantzilerrak Israelekin egingo du bere lehen bilera diplomatikoa, eta horrek jada militarizazioa zein norabide-tan joango den erakusten digu.

Zergatik aukeratzen du, orduan, Kolonbiako gizartearen gehiengoak De la Espriellarena bezalako aukera bat?

Uste dut Kolonbiako gizartearen sektore handi bat kontserbadorea, kontrainsurjentea eta paramilitarra dela. Gizartea bera. Eta badago jendea,

Kolonbiatik kanpo zein barruan, De la Espriellaren proiektu politikoaren alde kontzienteki bozkatu duena.

Autokritika ere egin behar dugu: gobernu nazional edo tokikoen bidez boterea badugu, begiratu behar dugu norekin egiten ditugun aliantzak, nola hartzen dugun parte eta nola proiektatzen dugun Kolonbian ezkerreko edo progresista den gobernu bat modu hurbilagoan. Zaila da bake politikarako proposamen zehatz eta landurik ez badago; benetan eztabaidatu behar da paramilitarismoa desagitea, ez soilik termino militarretan, baita politiko eta ideologikoetan ere.

Badago, halaber, aldaketa politikoa ikuspegi elektoral huts gisa hartu zuen sektore bat, eta ez hurrengo prozesurako gizarte oinarriak prestatzeko modu gisa; izan ere, jazarpena, presioa, seinalatzeak, desprestigioa, asmakeria judizialak, militarizazioa eta beste hainbat egoera ez dira desagertu. Horregatik, Freytter Elkarteak, adibidez, geldialdi bat egiten du uztailaren 20aren aurrean eta esaten du: «Bai, kolonbiartzat aitortu behar dugu geure burua, Kolonbiako kultura ospatu eta ekarri behar dugu, baina baita datozen lau urteetan uztailaren 20a nolakoa izango den kritikoki hausnartu ere».

Zer falta izan zaio Cepedari? De la Espriellaren meritua izan da gehiago, edo alderdi historikoaren eta Ivan Cepedaren porrota?

Bere kanpaina oso apala izan da. Kolonbiako hautesleengan portaera politiko berri bat sortzen eta beste sektore sozial batzuetara hurbiltzen saiatu da, baina hor hutsu-neak izan ditu, joko elektoral batean jokoa hauteskundeena

«AEBn bizi diren
hautesleengan
eragiteko erabili
zituzten hango
enpresa
informatikoak; han
kolonbiarren
gehiengoa Centro
Democraticoren
aldekoa baita»



baita; ez dago beste esparrurik. Beste komunitate batzuetara gehiago hurbiltzea falta izan zaio. Adibidez, ez zen nahikoa izan Cepeda Madrilerako joatea Europako kolonbiar guztiekin biltzera. Nire ustez, kolonbiar biztanle ugari dituzten Europar Batasuneko herrialde handietan ere bira bat egin behar zuen.

Gainera, eguneroko militantzian eta bere aholkulari taldean parte hartze handiagoa zuen joko politiko bat sortzea falta izan zitzaion. Cepeda figura ordezkatzailerik da, baina nortasun oso zentrala du, Kolonbiako hiriburukoa da. Abelardok probintziakoa izatearen faktorearekin jokatu zuen, nahiz eta bere nortasun agi-

rian Bogotan jaio zela agertu. Eta horrek errotzea ematen dio zenbait eskualdetan. Horrek ere nolabaiteko sinesgarritasuna eta ibilbidea ematen lagundu zion, Petrok hauteskunde iruzurrari buruz egindako inpugnazio edo akusazioen aurrean.

Hauteskunde iruzurrik egon al zen?

Horri buruzko eztabaida dago, baina, iruzurra baino gehiago, uste dut kontua dela jada bermatuta zutela Kolonbiako hauteskundeak lapurtuko zizutela. Eta horregatik erabili zituzten AEBko enpresa informatikoak, AEBn bizi diren hautesleen artean eragiteko, han kolonbiarren gehiengoa

Centro Democraticoren aldekoa baita, nahiz eta plaza hori Abelardok hartu duen. Israelen, AEBn eta Kolonbian bertan ere botoan eragiteko saialkerak egon ziren.

Zure aita nola gustatuko litzazuke gogoratzea? Pertsona bera baino gehiago, kasua.

Nik uste dut paramilitarismoaren aurkako borrokaren kasu gisa gogoratu beharko litzatekeela; herrialdean lan eta sindikatu eskubideen defentsarako, beste Kolonbia baten aldarrikapenerako: Kolonbia inklusibo, demokratiko bat, ezkerreko proiektu batekin eta aberri handiaren ikuspegiarekin.

Uste dut hori garrantzitsua litzatekeela gogoratzea, eta, ba-

tez ere, pentsamendu kritikoren defentsa. Hori izango da datozen lau urteetan gai eta apustu politiko garrantzitsuetako bat. Freytter auzia berriro ere ardatz egituratzaile izango da, Abelardoren Gobernuaren aurkako oposizio politikoa egiteko elkartuko gaituen ardatza, Gobernu narkoparamilitarra eta faxista baita. Hemendik publikoki esaten dugu: Freytter Elkarteak, oposizio politikoa egingo dio Gobernu honi, eta gure gaitasun humano, intelektual eta politiko guztia erabiliko dugu paramilitarismoaren, ustelkeriaren eta Estatuko agenteen, eredu ekonomikoaren eta giza eskubideen urraketen arteko loturak salatzeko. 25 urte hauetan ere ikas-

gai eta ikaskuntza bat eman diogu euskal gizarteari. Kolonbiar eta euskaldun, erbesterratu gisa, erakutsi dugu posible dela diskurtso kritikoari eustea, baita arreta gutxiko uneetan ere, azkenean arrazoia izaten amaitzen duen diskurtsoari.

Eta arrazoia da, paramilitarismoa desegiten ez bada, bake politikari eta Kolonbiako gatazkari irtenbide integrala ematen ez bazaio, gobernu faxista eta paramilitarrak izaten jarraituko dugula, eta horiek nazioarteko politika, politika nazionala eta herrialdeko giza eskubideen defentsa zuzenduko dituztela. Horregatik, salatzeko eta mobilizatzeko betebeharrak etikoak eta erantzukizun historikoa dugu.



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Udako postalak

Zer bilatzen dugu udako urtaroen kanpora goazenean, urteko oporraldi nagusia gizartearen masa handi bat hartzeko prestatzen den garaian?

Nonbaitera jotzen dugu, kanporatzeko beharrarekin. Kanpoalde hori atzerri bezala definitzen da, gainontzeko urtaroen egunerokotasunetik distantzia prudente batera izateagatik definitzen den atzerria. Desberdintasunaren bilaketa edo berdintasunean desberdintasuna bilatzea dago bidaien muinean, exotikotasun maila neurtu batekin edo gainezka eginez.

Oporrak fikzio bat dira dimentsio askotan, irla-denbora bat langilearen bizitzan. Zukua atera nahi diogu eguneroko beharretatik aldendu garen denborari, eguna gure gorputzaren erritmo organikoago batean osa dadin utziz. Plazerak eguna agintzen du, nagikeria ongietorria da eta gorputza biguntzen zaigu opari gisa. Lasaiago arnasteak eskaintzen du egunerokoari galderak egiteko pentsaldia.

Bizitzari ohikotasunetik urrutiratuta ekiteko nahiarekin batera, kuriositatearen engainuak eramaten gaitu kilometroak egitera. Gizakion jakin-min natural batek hartzen du eguna, beste lurraldeak nolakoak diren ikusteko, beste lurralde horren orainarekiko eta batez ere iraganarekiko interes puztu batekin. Pentsatu nahi dut bidaiatzeko bulkada ez duela inork fabrikatu eta barnetik ateratzen den energia dela. Izan ere, jakin-min mota hori lurra hartzen dugun lurraldeetan ere aurreikusten dute, bisitarako menu bat diseinatu. Menu bat, plastifikaturiko janariaren antza hartzen duena. Berdin zaigu, oporretan gaude.

“Turismoa egitea” deitzen diogu beste lurralde baten informazioa jasotzeari. Instituzionalizaturiko turismoak begiradari foku jakin bat jartzten dio, bereganatzeko postalak eraikitzen ditu, bisitariak argazkietan jasotzeko pentsatuak. Seinalaturiko lekuak, askotan testuingururik gabe bisitatzen direnak, isolaturik, errelato

bakarraren mesedetan. Lurraldearen identitate bat ekoizten da lurraldearen egunerokotasunetik eta bizi-esperientziatik aldendua, baina kontsumitzeko egokia.

Bestelako postalen bila joatekoak bagara, segur aski proposatzen diguten fokuak ekidin beharko genituzke eta inguruan uzten dutena behatu. Ikerlari edo detektibe baten moduan pasatzeari ekin geniezaioke, hainbat galderaren erantzunen topaketa-jolasean. Nor bizi da paraje horietan, zein ezaugarri propio dituen, zer dugun amankomunean eta zerk desberdintzen gaituen. Nor ari da landa zaintzen, zer landaketa mota dauden, nola baldintzatzen duen landaren lanak bertako arkitektura. Zein ekonomia iturri dagoen eta nola eragiten duen ekonomia nagusiak lurraldearen antolaketan.

Sotiltasunaren turismoarekin udako postal bilketa egin dezakegu, kanpokoari begiratu gure buruaz galdeztzen jarraitzeko. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } Lur ALBIZU ETXETXIPIA

Beroa

Beroa. Uda honetako (eta pasa diren ude-tako, eta datozen guztietako) hizketagai nagusia izan dugu. Eta, uste dut, hizketagai nagusi izateaz gain, ezinegon iturri handi xamarra izaten ari dela aste eta hilabete hauetan beroa. Bistan da, ez bakarrik beroa, baita horri lotuta bururaten zaizkigun hitz eratorriak ere: beroa, euri falta, beroa, *etxeaezda30gradutikjaisten*, beroa, *noizbukatukodaastehau?*, beroa, suteak, beroa, ur falta, beroa, *ezgaudepresthausoportatzeko*, beroa, klimatizazioa, beroa, dutxa, beroa, ura, suteak, ez gaude prest...

Lehen hitz horiez gain elkarrizketak aurrera egiten badu, «hurrengo urteetako freskoena izanen da uda hau!» izaten da ohiko esaldia, dagoeneko ohitura bilakatu dena.

Gutxiago entzuten ditut, ordea, bestelako hitz edo esaldi batzuk. Bestelako galdera batzuk. Izan ere, iruditzen zait iritsi zaigula ordua galdera berriak egiteko, erantzunak topatu ahal izateko, batez ere. Alarmez gain, gizaki gisa gainera eroriko zaigun (erortzen ari zaigun) erronka handienetako bati

nola helduko diogun pentsatzea komeni zaigu. Pentsatzea, eztabaidatzea, kontraesanak lantzea. Eta aldatzea; gizarte gisa aldatzea.

Udaro (bai, dagoeneko uda guztietan gertatzen baita) zenbat jende hiltzen den garai hauetan gurean beroaren eraginez (bai, beroaren eraginez), eta baita kiskaltzen ari den Europa osoan ere, noski.

Klimatizazioaz, eraikinez, egokitzen ari gara, baina zenbatetan hitz egiten dugu, norberak bere etxean egiten duenaz gain, beste zerbaitez ere kezkatzeko? Nola egingen dugu babesleku klimatikoak ahal bezain handiak, hobeak eta kalitatezkoak izan daitezen?

Lehorteei buruz ari gara, eta igerileku publikoen onurez guztiz ohartuta, noiz mintzatuko gara etxe gutxi batzuentzat diren (edo, are, etxe bakarrarentzat diren) igerilekuez? Nondik uste dugu ateratzen dela ura? Zer egingen dugu horiekin?

Kontsumoaz ez gara batere aritzen. Badaezpada. Norberaren bekatuak ez daitezen nabarmendu, edo. Baina aritu beharko gara, bada, egunero sortzen dugun aztarnaz, jaten dugunaz (eta hori ekoizteko behar den uraz; haragiaz, adibidez), garaian garai eta etxetik gertu erosten ez dugunaz eta konpultsiboki merkatuan mugiarazten dugunaz. Hitz egin beharko dugu gure mugikortasunaz, dauzkagun autoez eta ereduaz. Politika publikoek urgentziaz erantzun behar diote horri.

Eta hitz egin beharko dugu norberarenaz, kolektiboki ekiteko. Feminismoak zerbait erakutsi badit, guztion arazoak direnak norberaren barru-barruan kokatzen direla izan da. Eta ekiteko garaian ere, ni

Lehorteei buruz ari gara, eta igerileku publikoen onurez guztiz ohartuta, noiz mintzatuko gara etxe gutxi batzuentzat diren (edo, are, etxe bakarrarentzat diren) igerilekuez? Nondik uste dugu ateratzen dela ura? Zer egingen dugu horiekin?

eta gu, biak elkartzen direla mundua aldatzen saiatzeko.

Abstrakzioak utzi eta hitz egin beharko dugu krisiaren muina diren erregai fosilez, desberdinkerietan oinarritutako sistema injustu batean fosilak erre eta erre, kontsumitu eta erre, autoak eta erre, lana eta erre... ari garen honetan, erroko arazo honi nola helduko diogun. Eta bai, «aberatsek kontsumitzen badute, nik ere bai» falazia da: munduko biztanleen %10 aberatsenaren parte gara.

Leloez, esloganez eta aldarri abstraktuez aparte, hitz egin beharko dugu egin behar diren politika publikoek (eremu guztietan), aldaketa kulturalaz eta kontsumo-murrizketa handiez. Beste alde batera begiratzek ez digu deserosotasuna gainetik kenduko, jakin badakigulako zerbait, noizbait egin beharko dugula. Inoiz ez da beranduegi, baina nahiago dut berandu baina garaiz izan dadin. •

HERRIA EZAGUTZEN

Euskal Herriko mugak oinez, Goierriko Mendizale Beteranoen eskutik

📁 **AISIA** / Asier Aiestaran

Duela hilabete pare bat argitaratu zuen Sua argitaletxeak “Euskal Herriko mugak oinez” liburua. Bertan, izenburuak dioen moduan, gure lurraldea bere perimetrotik zeharkatzeko ibilbide bat proposatzen da, guztira 1.382 kilometro, 66 etapatan banatuta.

Baina liburuaren ezaugarri nagusietako bat egiletza partekatua da, kolektiboa, lan hau Goierriko Mendizale Beteranoak elkarrekin osatu due-lako bere azken urteetako ibilaldiak bildu eta paperera eramanez. Prozesua nolakoa izan den azaldu digute Juanjo Muxika eta Joxean Insausti elkarteko kideek Ordizian jarritako hitzorduan.

BIDEAN SORTUTAKO IDEIA

«Goierriko Mendizale Beteranoak 2009. urtean sortu zen, aurrejubilatutako zenbait jende bilduta. Hasieran 18 pertsona ginen, emakume bat tartean», ekin dio azalpenari Muxikak. «Euskal Pirinioko Bira egin genuen 2010 eta 2011 urteen artean, 2011 eta 2012 urteen artean Nafarroako Bira. Zazpi Hiriburu-etako Ibilbidea ere egin genuen garai horretan...», gogoratu du.

«Guk hasiera batean ez genuen Euskal Herriko muga osoa oinez egiteko asmorik, baina Euskal Kostaldeko Ibilbidea egiten hasi ginenean Baionatik, Bizkaia aldera gerturatzeko ari ginela konturatu ginen posible zela zerbait gehiago egitea. Horrela, Arabako Bira egiten hasi ginen, hori Bizkaia-arekin lotzen, Errioxako muga, Nafarroa-koa... Eta 2012. urtean hasi zen Euskal Herriko mugak oi-

Euskal Herriak oinez ibiltzeko hainbat aukera eskaintzen dizkigu, ibilbide desberdin asko, eta Goierriko Mendizale Beteranoak elkarrekin horren ezaguna ez den bat bildu du «Euskal Herriko mugak oinez» liburu-gidan. Gure herriko maparen perimetria zeharkatzeko proposamena da, guztira 1.382 kilometro, 66 etapatan banatuta.

nez lotzeko egitasmo hau gauzatzen. Azkenean, sei urteren buruan, zeharkaldi osoa egitea lortu genuen», azaldu du Muxikak.


Diotenez, gaur egungo informazio iturriekin, ez zuten arazo berezirik izan ibilbidean falta ziren zatiak osatzeko. «Ez genuen zailtasun berezirik izan. Behin Nafarroa Zaragozarekin lotzen joan ginenean aurrera jo genuen, eta egia da orain Interneten informazio asko aurki daitekeela. Liburuak, mapak... Zegoenari tiraka Nafarroako mugak egiten joan ginen, lehenik Zaragozarekin, gero Huescarekin, Hiru Erregeen mahaia, Añamendi, Zuberoa eta Biarno aldetik aurrera, Nafarroa Beherea, Lapurdi... Baionan, hasiera puntutzat hartu genuen lekuan bukatu arte», azaldu du Juanjok.

Zailtasunen bat aipatzeko, une batzuetan lekuan bertan bideren bat zaindu gabe egotea izan zela gaineratu du Joxeanek: «Zailtasun handirik ez da izan, baina zerbait egotekotan da lekuan bertan aurkitzen duzuna. Noiz edo noiz bide trakets samarren batean ibiltzea tokatu izan zaigu. Bat dut gogoan, Zuberoa eta Biarno arteko mugan, Izarbe inguruan. Jendea ibiltzen ez den lekuetan horrelakoak aurkitzea normala da».

«Santa Grazitik abiatuta, Izarbe jaisten ari ginela, saski traka artean ibili behar izan genuen», berretsi du Muxi-

Joxean Insausti (ezkerrean) eta Juanjo Muxika (eskuinean), Ordizian egindako hitzorduan. Andoni CANELLADA | FOKU

kak. «Garro altua, larra... Errioren bat ere izan genuen, zorionez ezer larririk ez», gehitu du, baina argi utzi nahi dute bi mendizaleek ibilbideak prestatzeko jende oso prestatua dutela elkartean. «Oso gida potenteak dauzkagu. Aurrez oso ongi prestatzen dituzte ibilaldiak, nondik nora joan behar dugun, zailtasunak non egon litezkeen...». Eta Muxikak dioen bezala, garai aldaketara ere moldatu dira: «Hasieran, 2009an, iparrorratzarekin ibiltzen ginen. Gero GPSa es-



kuratu genuen eta errazagoa egiten da dena».

LIBURUA EGITEKO AUKERA

«Talde koordinatzaile barruan hitz egin genuen», egin du memoria ariketa Juanjok. «Datuak badauzkagu, erreferentziak ere bai, luzerak, denborak, desnibelak... ‘Zer iruditzen zaizue liburu bat argitaratzen saiatzea?’ proposatu genuen. Taldeko zuzendaritzak baiezkua eman zuen eta Elkar argitaletxearekin, kasu honetan Suarekin, harremanetan jarri ginen. Hori



Goierriko Mendizale Beteranoak elkarteak 2009an sortu zen eta Euskal Herriko zenbait zeharkaldi egiten hasi zen, hasiera hartan mugen ibilaldi hau osatzeko asmorik gabe

Egiten ari ziren ibilaldi guztiak lotuz Euskal Herriko mugen ibilbide bat osatu zitekeela ikusi zuten, eta apurka joan ziren betetzen. Liburu bat egiteko ideia 2023an izan zuten

2023an izan zen eta proiektuak hiru urte iraun du».


Emaizta 240 orrialdeko liburuxka mardula da, argazkiz eta mapaz, bakoitza bere QR kodearekin, ongi osatua. Euskal Herriko mugak oinez zeharkatu ahal izateko 66 etapa deskribatzen dira, bira osoa Baionan hasi eta Lapurdiko hiriburuan amaituz, erlojuaren kontrako norabidean.

Etapak bakoitzak bost bat orduko iraupena du gutxi gorabehera, baina badaude apur bat motzagoak edo luzexagoak direnak, ibilbideko beharren arabera. Antzekoa gertatzen da ibilbideko kilometro kopuruarekin ere: 20 kilometroren bueltan ibil daiteke etapa bakoitza, baina aldakorra da igo beharreko desnibelaren arabera, esaterako.

Horregatik, liburuan etapa bakoitzaren datu eta xehetasun guztiak zehazten dira: hasiera puntua, amaiera puntua, denbora, luzera eta desnibela. Faktore horiek kontuan hartuta, etapen sailkapen bat ere egiten da zailtasunaren arabera: erraza, ertaina edo zaila. Eta jarraitu beharreko bidea deskribatzen da, erreferentzia puntu nagusiak nabarmenduz eta mugarriz mugarri igarotako denboren berri emanez.

Garrantzitsua da nabarmentzea etapak leku batean

Sua argitaletxeak ateratako liburuaren azal erakargarria. 25 euroan jarri dute salgai Euskal Herriko liburu denda nagusietan. SUA




hasten direla eta beste batean amaitu, beraz ibilbideak liburuan deskribatzen diren bezala egitekotan garraioa kontuan izan behar dela. Egileek diotenez bereziki interesgarria izan daiteke autobusean mugitzen diren mendi taldeentzat; bestelako mendizaleen kasuan agian ideiak hartzeko da aproposagoa, edota ibilbide osoak egin beharrean zatika joan-etorriak eginez.

Etapak oso luzeak ez izateak, gainera, ibilaldiak beste bisita batzuekin osatzeko aukera eskaintzen du. «Gu, ibilaldia amaitu ondoren, inguruan intereseko guneren bat bazegoen bertara joaten ginen. Pozalaguako kobazulo famatua Karrantzan, Otsozelaia Izturitze inguruan, Burgiko

ofizioen museoa eta ibilaldia, Orbaizeta inguruko zutarriak eta eremu megalitikoak... Horrelako asko dago», nabarmendu du Juanjo Muxikak.

Azken batean, gure herria hobeto ezagutzeko aukera paregabea da, Insaustiren hitzetan. «Entzunda geneuzkan lekuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu. Eta erabat ezezagunak zitzazkigun beste batzuk ere bai. Zaragoza eta Nafarroa arteko mugan dauden herrixkak, Bardeak... Eta batez ere leku oso desberdinak, paisaia askotarikoak. Hasi kostaldetik –flysch-a, Gaztelugatxe...–, mendi tontor handiak –Hiru Erregeen Mahaia eta inguruko mendiak–, Bardeak eta Erriberako baratze eta sorroak, niretzako ezezagunak



ziren Arabako mendi asko, Bizkaia eta Kantabria artekoak...».

MENDI TALDE BIZI-BIZIA

Juanjo eta Joxeanekin izandako elkarrizketa Goierriko Mendizale Beteranoak elkar-tearen jarduna hobeto ezagutzeko ere baliatu nahi izan dugu. «Une honetan 120-130 bazkideren bueltan ibiliko gara. Goierri osoko jendea eta gehiago, Legazpitik hasita Tolosalderaino. Donostia-Getaria-Zarautz aldetik ere etor-tzen da jendea. Hemengoak dira, baina hara bizitzera

joandakoak. Emakumeak 35 bat izango dira. Hasieran ba-karra hasi zen, baina pixka-naka gehitzen joan da kopu-rua», kontatu digu Insaustik.

Uda partean, Santa Ana eta iraileko Euskal Jaien artean, geldialdixoa egiten omen dute, baina udazkenarekin batera berriz ere topera. «Une honetan hiru zeharkaldi desberdin egiten hasita gaude. Bat Euskal Herriko zeharkaldia da, Kantabriako mugan hasi eta Hiru Erre-geen Mahaian amaituz, nola-bait Ur-mugan egiten duten marra hori jarraituz. Hor 20

bat etapa baditugu, gehixea-go agian».

«Bestetik Abaltzisketako erromesaren ibilbidea. Gure-tzat istorio ezezaguna zen. Antza denez maitemindu bat bazen Abaltzisketan eta gaiz-takeriaren bat egiteagatik pe-nitentzia jarri zioten: santute-giz santutegi joatea Urkiolaraino. Interesgarria iruditu zitzaigun eta mendian ibiltzeko aitzakia ederra».

«Eta hirugarrena GR-I dela-ko ibilbidea. Berez Tarragona-tik Finisterrerraino luzatzen da, baina gu Euskal Herriko zatia egiten ari gara, Pitillas aldetik abiatuta. Orain dena aldatzen ari da, baina neguan eguraldi hobearen bila joate-ko aukera ona izaten da. Eta alderantziz, uda garaian men-di aldera gehiago jotzen du-gu», dio Insaustik.

Argi dago ideiak eta planak ez zaizkiela falta, eta ezta oi-nez leku berriak ezagutzeko gogoia ere. Ez dakigu beste li-bururik etorriko den, baina bidean goza dezatela.

Ibilbide osoaren laburpena, bere 66 etapekin, Baionatik mendebaldera abiatuz eta Baionan bertan amaituz. GMB

66 ETAPAK

ITSASOA MUGA

- 1. Baiona - Lafitenea
- 2. Lafitenea - Hendaia
- 3. Hondarribia - Pasai Donibane
- 4. Pasai San Pedro - Donostia
- 5. Donostia - Zarautz
- 6. Zarautz - Deba
- 7. Deba - Lekeitio
- 8. Lekeitio - Elantxobe
- 9. Elantxobe - Gernika
- 10. Gernika - Bermeo
- 11. Bermeo - Bakio
- 12. Bakio - Gorliz
- 13. Plentzia - Portugalete
- 14. Portugalete - Cobaron

MENDEBALDEKO MUGA

- 15. Kobaron - Turtzioz
- 16. Basinagre - Pozalagua
- 17. Ranero - Lanestosa
- 18. Lanestosa - Los Tornos
- 19. Los Tornos - Balmaseda
- 20. Balmaseda - Santa Koloma
- 21. Santa Koloma - Añes
- 22. Añes - Agiñaga
- 23. Agiñaga - Urduñako mendatea
- 24. Urduñako mendatea - Astulez
- 25. Astulez - La Horca mendatea
- 26. La Horca mendatea - Herran
- 27. Herran - Tobillas
- 28. Tobillas - Gurendes
- 29. Gurendes - Sobron
- 30. Omecillo ibaia - Zambrana

HEGOALDEKO MUGA

- 31. Zambrana - Bastida (San Gines)

- 32. San Gines - Samaniego
- 33. Samaniego - Eltziego
- 34. Eltziego - Oion
- 35. Oion - Legardako ermita
- 36. Legardako ermita - Lodosa
- 37. Lodosa - San Adrian
- 38. San Adrian - Rincon de Soto
- 39. Rincon de Soto - Castejon
- 40. Castejon - Piedralobos
- 41. Piedralobos - Mojon Tres Reyes
- 42. Mojon de los Tres Reyes - Malon
- 43. Malon - Cortes

EKIALDEKO MUGA

- 44. Cortes - Antso Abarka
- 45. A. Abarka - Santa Margarita
- 46. S. Margarita - Zarrakaztelu
- 47. Figarol - Gabarderal
- 48. Gabarderal - Leire
- 49. Petilla Aragoiko itzulia
- 50. Leire - Gazteluberri
- 51. La Tejeria - Burgi
- 52. Burgi - Fago
- 53. Puieta - Abauko aterpea
- 54. Abau - Argibiela mendatea
- 55. Argibiela - Linzako aterpea
- 56. Linza - Hiru Erregeen Mahaia
- 57. Laskun - Ernaz (San Martin H.)
- 58. Ernaz - Urdatx/Santa Grazi
- 59. Urdatx/Santa Grazi - Izarbe
- 60. D-632 errepidea - Urdaburu
- 61. D-918 errepidea - Eskiula

IPARRALDEKO MUGA

- 62. Eskiula - Mitikile
- 63. Mitikile - Ozaraine
- 64. Ozaraine - Bidaxune
- 65. Bidaxune - Ahurti
- 66. Ahurti - Baiona

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:



hik jai eta nik lan **SABIN URIBE ETA IBON VIRUMBRALES** PATXON TABERNA

Karraspioko uda bizien kronikariak

Azken hemeretzi urteotan, «tsunami» bat baino gehiago ezagutu dute Sabin Uribek eta Ibon Virumbralesek Mendexako Karraspio hondartzan, Patxon Tabernan. Ez diote egunerokoari umore puntua jartzeari utzi, tratu hurbila eta kultur eskaintza uztartuz. Korrespontsal ere izan dira.

Nerea GOTI

Zer izango litzateke uda, hondartza ondoan edari hotz bat eta mokadutxoa hartzeko une horiek eskaintzen dituzten taberna horiengatik ez balitz? Eta udako gauetan, Garraitz irla aurrean duzula, zerbait hartu, bistekin gozatu eta kontzerturen bat ikusteko aukera bada-go? Mendexan, Lekeitioko hirigunetik hurbil, Karraspio hondartzaren ondo-ondoan, une freskagarri horiek eta askoz gehiago eskaintzeaz arduratzen dira Sabin Uribe eta Ibon Virumbrales, umoretsu, elkartasunarekin konprometitu eta beti udari kolo-rea, zaporea eta saltsa jartzeko prest.

Karraspio ondoko paseoko azken taberna da Patxon. Bazkariak, afariak, pintxoak... ematen dituzte bista ederrak eskaintzen dituen txoko atseginean, eta tratu hurbila eta umore puntu bat gehitzen dizkiote barrako lanari, bidean istorio ugari pilatuz. Ez da hondartza ondoko establezimendu bat gehiago, giro berezia sortzea bilatu izan dute hasieratik. «Kafe ona» ematen dutela diote, baina adin guztietako bezeroek, tokikoak zein beraneantek, bertaratzen jarraitzen badute, zerbaitegatik izango da. Hemeretzi uda eman dituzte Virumbralesek eta Uribek Patxon Tabernan, eta batek daki zenbat ordu. Sei hilabetera mugatzen da haien urteko lanaldia, baina ordu asko pilatzen dira tarte horretan, batez ere hasierako urteetan. Kontatu dutenez, Aste Santuan hasten da beroketa: «Martxoan edo apirilean zabaltzen dugu, Elizak edo Vatikanok urtero

erabakitzen duten datan! Tokatzen denean ireki eta Aberri Egunaren osteko egunera arte aritzen gara; ondoren, zapatodomeketan irekitzen dugu, eta, ekain aldera, eguraldi onarekin, egunero zabaltzen hasten gara, urrira arte. Horixe da gure sa-soia». Aurten, halere, uda aurreko bero handiekin, egunero-koa apur bat aurrerratu dute.

UZTAILEAN HASTEN DA «TSUNAMIA»

Udako lana mintzagai hartuta, terrazako mahai baten inguruan eseri dira GAUR8rekin hizketan Virumbrales eta Uribe. Hasteko, esan beharrik ez dago tabernariaren zereginak ez direla barra atzean jarri eta zerbitzatzera mugatzen. Txandak, prestaketak, eskariak... ere egon ohi dira tabernarien lanen zerrendan. Sartu beharreko lanorduez galdetuta, «antolaketa araberakoa» izaten dela azaldu dute: «Daukazun jendearen araberakoa izaten da, baina lan handiko udak izaten dira, hori bai. Guk esaten dugun bezala, Aste Santuan hasten da gure penitentzia; errodajea egiten hasten gara, poliki-poliki goaz, eta uztailean eta abuztuan 'tsunami' hutsa da».

Urteekin praktika hartu dutela erantsi du Uribek: «Lehenengo urteetan, bueno, zer zen hori!» Neurria hartu arte, «astelehenetik domekara» egoten ziren barraren atzean. «Urrian demakratuta amaitzen genuen». Tabernan, «batzuetan


asto-lana» tokatzen dela azaldu du, eta, nahiz eta agian txanda izan ez, jai izan... «beti daude ustekabekoak».

Virumbralesen esanetan, uztaila izaten da bereziki gogorra: «Uztaileko egun beroak, asteburuak... Niretzako horiek izaten dira gogorrenak, jendea oraindik lanean dagoelako, estres maila altuarekin... Orduan gura du egun batean dena egin, aparkatu, eguzkia hartu, jan, edan... Gainera, denak egun berdinean datoz, eta, noski, jende asko dagoenean, ezin da arin eman. Lehenengo urtean konturatu nintzen, abuztuan, jendea ja oporretan dagoenean, beste lasaitasun batekin datorrela».

Taberna ugari dago zerbitzu ona ematen dutena, baina Patxon Tabernan, beste giro bat sortu nahi izan dute. «Umore pixka bat eskaintzen dugu, eskaintza kultural txikitxo bat ere badaukagu, kontzertutxoren bat, giro ona... Sasoi honetan ondo pasatzeko espazioa da gurea».

«Euskal giro jatorra eta pintxo goxoak» izan dutela lelo gogoratzen dute barre artean, eta, datorren urtean, efemeride berezia dutela, hogeigarren urteurrena ospatuko baitute bezeroekin: aurrerratu dute ja-da «Bilboko Aste Nagusikoen pareko botafuegoak» egongo direla Karraspion.

Patxonek zein indargune dituen galdetuta, gertuko tratua «eta kafe ona» aipatzen dituzte



lehen kolpean. Jendeak hurbiltasun hori eskertzen duela uste du Uribek. «Gertutasuna gako da. Gu ez gara ohiko tabernariak, uste dut nahiko naturalak garela, eta horrek ez du esan nahi edozelan lan egiten dugula, baina gertutasuna izatea eta umorea ez galtzea gauza inportantea da», gaineratu du.

Hemeretzi urte asko dira eta gertuko zerbitzua eskaintzen duenak jende askorekin egiten du harremana. Azaldu dutenez, Lekeitiora edota Mendexara urtero oporretan joaten diren familia asko dituzte bezero, eta horrek harreman hurbilak sorrarazi ditu. Ostalaritzan emandako urteek ordain handia izaten dute, baina Uribe eta Virumbralesentzat lanak alderdi polita dauka: kalean eta jendearekin harremanetan egotea. Une berezien artean, iluntzea aipatzen dute, batzuetan ordutegia apur bat luzatu arren. «Leku paradisiakoa da, eta gaueko giroa ederra da...», erantzun dute berehala.

Lekeitio eta Mendexako herritarrak dira bezeroen erdiak, eta turistak beste erdiak. Azaldu dutenez, hori bai, aurrein baino gehiago ari dira nabaritzen turisten presentzia. Euskal Herri osoke bezeroak izaten dituztela azaldu dute, Bilbokoak, Gasteizkoak... Diotenez, kontuan hartu behar da badaudela «azken 40 urteetan etorri direnak, falta

gabe, urtero-urtero, udaro. Jende hori ezagutzen duzu, ikusten dituzu adineko egiten, eta, urte batean falta direla ikusten baduzu, pentsatzen duzu: 'hau agian makaltxo ibiliko da aurren?'. Gero, hala-ko batean agertu eta izugarritzko poza hartzen duzu».

Bi hamarkada tarte nahikoa da istorio asko pilatzeko. Pentsa, Hala Bedi Irratiko korrespontsalak ere izan dira Uribe eta Virumbrales, zuzen-zuzenean Karraspioko hondartzatik! Oroitzapenerako geratzen da, bestetik, tabernaren egunerokoa astindu zuen eta Patxon urakanaren begian jarri zuen gertakaria, herriko presoek irudiak jomugan jarrita. Patxi Lopez EAeko lehendakari zela, Karraspioko puntaraino joan ziren Ertzaintzaren efektiboak argazkiak kentzera,

Sabin Uribe eta Aitor Virumbrales, Patxon Tabernan.
Aritz LOIOLA | FOKU



inputazio mehatxupear. Egoerak sorrarazitako estresa dute gogoan, baita lankide bat haurdun zela ere garaian...

«AQUÍ SE CENSURA»

Egoera surrealistari erantzunez, Francisco Franco diktadorearen irudia jarri zuten Patxon Tabernan, «Aquí se censura como en la dictadura» zioen mezu baten ondoan. Herriko presoek ehizaren erdian, argazkiak kentzeko agintzea eta zigorrak jartzea zen eguneroko ogia, eta Ertzaintza hainbatetan bertaratu zen Patxonera. Ondorioz, hurrengo zioen kartel bat jarri zuten tabernan: «El día 9 de septiembre del año de nuestro señor 2009, el glorioso y leal cuerpo de la Policía Autónoma mandó retirar de este mismo establecimiento y en un plazo má-

ximo de 24 horas las fotos de cinco separatistas vascos ya cautivos». Lehenengo lerroak baino ez dira, luzeagoa da testua, eta «nahiko birala» egin zen.

Era sarkastikoan salatu nahi izan zuten irudiak kentzeko agindua eta jasandako jarrerak, sarri izan bazituzten ertzainak barraren aurrean argazkiak kentzeko agintzen. Atzera begiratuta, «oso argi» zuten ez zirela ezer txarrik egiten ari: herriko bost presoek eskubideen defentsa zegoen erdian. Virumbralesek dioenez, «duintasun kontuan ere bazen. Nik garai hartan anaia neukan kartzelan, eta nork esan behar zigun zer egin behar genuen gure etxean!». Urteak pasata, bizi izan zituzten une bitxi haiek gogoratu dituzte, sasoiko irudi harrigarriak aipatuz: «Jendea hemen, bainujantziarekin, hondartzan zerbait hartzen, eta Ertzaintzaren furgonetak, beltzez jantzitako poliziak tabernara sartzen, argazkiak kentzen...».

Ez dira Googleko iruzkinekin gehiegi kezkatzen, baina mezuren bat edo beste eragin zuen argazkien kontuak, eta kritikak ere jaso dituzte euskaraz aritzeagatik, gaztelaniaz hitz egin dieten bezeroak «behar bezala ez artatzeagatik»... Susmatzen dute horietako batzuk nondik datozen, eta umore puntu batekin gogoratzen dituzte.



Fernando TREBOL UNZUE
Psikologian doktorea



Garunaren psikobiologia oinarritzkoa buru osasunerako

Buru osasuna zaintzeko, ezinbestekoa da gure burua ezagutzea eta garenaren kontzientzia izatea. Hala ere, ez da nahikoa ikuspegi psikologikotik soilik begiratzea; biologiaren eta psikologiaren arteko lotura ulertzea ere funtsezkoa da. Garunak, bere egitura eta funtzionamendu kimiko eta neuronalaren bidez, gure pentsamenduak, emozioak eta jokabideak baldintzatzen ditu. Horregatik, buru osasun ona lortzeko, alderdi psikologikoa eta biologikoa uztartu behar dira.

Kontzientziaren kontzeptua hezkuntzan eta garapen pertsonalean maiz aipatzen da. Ikasleek kontziente izan behar dutela esaten da, beren jokabide eta inguruneaz jabetu daitezen. Haurtzaroan psikomotrizitatearen bidez lantzen da hori, eta ondoren gizarte-zientzien bidez, geografia eta historiaren ezagutzak eskainiz. Hala ere, galdera garrantzitsu bat sortzen da: informazioa ematea nahikoa al da kontzientzia kritikoa garatzeko? Ikasleei pentsamendu kritikoa sustatu behar zaiela esaten zaie, baina askotan hezkuntza-sistemak eredu itxi eta antolatatu bati jarraitzen dio, sormena eta hausnarketa askea mugatuz. Askotan biologiaren zentzuari bidea eskaini gabe.

Psikologiaren ikuspegitik, haurtzarotik baliabide sortzaileak eman behar lirateke. Hala ere, praktikan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn teknologien erabilera eta aurrez ezarritako ereduak jarraipena nagusitzen dira. Horrek ikasleen gaitasun sortzailea apaldu dezake. Metodo berriek aldaketa proposatzen badute ere, oinarrian dagoen ikuspegia berdina bada, zaila da benetako eraldaketa lortzea. Kontziente izatea inkontzientean dagoena gainditzeko prozesua da; horretarako, norberaren autokontzeptua garatu, heldutasuna sustatu eta biologiaren funtzionamenduaz jabetu behar da.

Garunaren gaitasun exekutiboak –plangintza, antolaketa, arreta eta erabakiak hartzea– eguneroko bizitzan ageri dira. Gaitasun hori haurtzaroan landu behar da, eta helduaroan nariadurak antzemateko adierazle izan daiteke. Hezkuntzak, beraz, oinarri sendo eta eraginkor bat eskaini beharko luke.

Kontzientziaren eta inkontzientziaren arteko bereizketa ere garrantzitsua da. Kontzientzia gure buruaz eta kanpoko errealitateaz dugun ezagutza da; inkontzientea, berriz, zuzenean kontrolatzen ez ditugun desira, oroitzapen eta prozesu mentalen multzoa. Psikoanalisi eta ondorengo korranteek inkontzientziaren existentzia azpimarratu dute, eta gaur egun ere onartzen da prozesu mental askok modu automatikoan jarduten dutela. Inkontzienteak garuneko hainbat eremurekin du lotura, hala nola erraboi errakideoarekin (funtzio autonomoak), zerebeloarekin (mugimendu eta ikaskuntza ereduak) eta sistema linbikoarekin (emozioak eta oroitzapenak).

Azken urteetan, teknologiaren erabilerak hezkuntzan eta eguneroko bizitzan izan duen eragina eztabaidagai bihurtu da. Gailu digitalek informazio azkarra eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietako gaitasunak eskaintzen dituzte, baina arriskuak ere badituzte: arreta-galera, kontzentrazio-arazoak eta memoria aktiboaren erabilera murriztea. “Kanpo-memoria” delako fenomenoak agertu da; informazioa gailuetan gordetzen dugu, ez burmuinean. Horrek ez du berez kalterik eragiten erabilera arduratsua bada, baina tresna osagarri izan beharrean ordezkari bihurtzen bada, garunak gutxiago entrenatzen du oroimena.

Ez dago frogatuta teknologia berriek dementzia zuzenean eragiten dutenik. Hala ere, estimulazio kognitibo eskasak, ariketa fisiko eza, harreman sozialen murrizketak eta estres kronikoak arriskua handitu dezakete. Irakurtzea, arazoak ebaztea eta hizkuntzak ikastea bezalako jarduerak garuna aktibo mantentzen dute eta babes-faktore dira. Beraz, gakoa ez da teknologia bera, baizik eta nola erabiltzen den.

Garunaren osasunak oinarri biologiko sendoa du. Glukosa da bere energia-iturri nagusia, eta egunean 120-140 gramo inguru behar ditu. Baraualdi edo egoera berezietan, gorputzak zetosi-prozesuak ere erabil ditzake. Proteinak eta gainerako mantengai esentzialak –bitaminak, mineralak, gantz-azidoak– ere beharrezkoak dira. Dieta orekatuak funtsezko 40 mantengai inguru bermatu behar ditu.

Glutaciona bezalako antioxidatzaileek zelulak babesten dituzte erradikal aske eta substantzia kaltegarrien aurrean. Gibela da haren ekoizpenean giltzarri, baina zelula guztiek sintetiza dezakete. Bestalde, melatonina, serotonina, endorfina eta oxitoxina bezalako hormonek eta neurotransmisoreek ongizate emozional eta kognitiboan eragiten dute. Elikadura desorekatuak edo bizimodu osasungaitzak apatia, arreta falta edo memoria-arazoak sor ditzaketela kontuan hartu behar dugu.

Ondorio nagusia da buru osasuna ikuspegi integratutik ulertu behar dela. Hezkuntzak pentsamendu kritikoa, gaitasun exekutiboak eta sormena sustatu behar ditu. Teknologiaren erabilera orekatu eta kontziente beharrezkoa da, memoria eta arreta gaitasunak gal ez daitezen. Elikadura egokiak eta bizimodu aktiboak garunaren funtzionamendua babesten dute. Kontzientzia lantzea –norberaren jokabide, emozio eta pentsamenduen jabetza– garapen osasungarriaren giltzarrietako bat da.

Azken finean, ez da teknologiaren edo kanpoko faktoreen errua soilik; gure ohiturek, elikadurak, hezkuntza-ereduak eta kontzientzia-mailak baldintzatzen dute gure garunaren eta buruaren osasuna. Ikuspegi orekatu, kritiko eta integratzaile batek lagundu dezake garapen kognitibo eta pertsonal sendoagoa lortzen. •

{ koaderno } Mijo LIZARZABURU

Jaietako gorputzen politikak

Abuztuan gaude eta, urtero bezala, egun batzuk hartu ditut nire herrian, Ondarroan, Andra Mari jaiak pasatzeko. Nik ia jai osoak Mamarratxosnan (herriko txosna transfeministan) pasatu arren, andramaixen egitarauak ekintza asko jasotzen ditu: marmitako lehiaketa, kontzertuak, gazte bazkaria, Leokadiren jaitsiera, danborrada... Aurten, baina, programazio horren guztiaren erdian, beste urte batzuetan horrenbesteko garrantzirik eman ez diodan zerbaiti erreparatu nahi izan diot: abuztuaren 15ean Dantzarteko kideek herriko Itsas Aurre plazan egiten duten ikuskizunari.

Dantzarte herriko dantza elkarteetako bat da, urteak daramatzana herriko gazteei balleta, funkya edo hip-hopa bezalako dantza estiloak irakasten. Azken urteetan, dantza ikuskizuna abuztuaren 15ean egin izan dute, dagoeneko ia erritual bihurtu den sekuentziaren bukaera gisa: lehenengo Ate Berdean izozkia erosten dugu, gero suak ikusi eta, ondoren, plazara hurbiltzen gara emanaldia ikustera.

Ikuskizuna hastean nabaritzen duzun lehenengo gauza dantzari gehienak neskak, marikak edo maskulinitate hegemonikotik aldentzen diren mutil gazteak direla da, adin ezberdinetakoak, taldeka edo binaka ateratzen direnak eszenatokira. Inguruan, berriz, familiak, lagunak eta herritarrak pilatzen gara haiei begira. Ez da, noski, andramaixetan emakumeek parte hartzen duten ekintza bakarra, baina Dantzarteren ikuskizunak jaietako beste jarduera askok sortzen ez duten eszena bat sortzen du: gizonak hegemonia ez duten talde bat herriko plaza nagusiaren erdian, gorputzarekin espazioa hartzen, kolektiboki protagonismoa hartzen.

Eszena horrek argi kontrastatzen du, adibidez, herri osora zabaldutako frontoi txapelketarekin, non gizonak gehiago absolutua diren. Eta bai, egia da emakumeek ere parte har dezaketela pala txapelketan, baina frontoiak historia, praktika eta harreman sare maskulinizatu bat dakar berarekin eta hori ukatzea gizonak eta emakumeak produzitzen dituzten sozializazio patriarkala existituko ez balitz bezala jardutea da. Ez ikustea nork ikasi duen jolasten, nor sentitzen den frontoia okupatzeko legimitatuta, nor dagoen ohituta publikoki lehiatzera eta nor gizonari begira txalo egitera. “Edonork parte hartu dezake” le-

loaren atzean aurkitzen duguna, unibertsaltasun formalaren tranpa delako; formalki denontzat da, praktikan gizonentzat.

Hori ez da, noski, pala txapelketan gertatzen soilik. Urtero, Euskal Herriko jai ezberdinetan udalek, gazte-teeek, jai batzordeek “denontzako” ekintzak antolatzen dituzte, ez dira gizonentzako ekintzak, “unibertsalak” dira, baina antolatzen dutena futbito txapelketa, boxeo erakustaldiak edo kukaña norgehiagokak badira, eszena gizonen betetzen da, gizonak ez diren pare bat salbuespenekin asko jota. Alde horretatik, kultur programazioak ez luke soilik galdetu behar “edonork parte hartu dezake?”, baizik eta “zer parte hartze eszena sortuko dugu ekintza honekin?”.

Erasorik gabeko jaiak nahi ditugu, baina baita espazio publikoa gizon gazte zuriak ez diren gorputzez betetzen dituztenak ere

Jaietako egitarauan generoa kontuan hartzea ez delako soilik erasoen prebentziorako eta arretarako protokoloak eta programak aktibatzea. Erasorik gabeko jaiak nahi ditugu, baina baita espazio publikoa gizon gazte zuriak ez diren gorputzez betetzen dituztenak ere, eta horretarako beharrezkoa da kultur programazioan dihardutenek politika intersektionalei arreta jartzea, denontzako izan behar diren jaiak benetan denontzako izateko. Gure helburua ez delako soilik jaietan “seguru” sentitzea, baizik eta urteetan ukatu zaigun protagonismoa hartzea, herria gurea ere badelako.

Transfeministok gizonen eta emakumeen jardueren arteko banaketa desagiteko borrokan jarraituko dugu, ez dugulako nahi kirol, dantza edo kultur praktikak generoaren arabera antolatzea. Baina banaketa hori ez da desagertzen existitzen ez dela esanez, eta, existitzen den heinean, beharrezkoa da gizonen erdigunea hartzen ez duten ekintzak babestea eta programazioan leku zentral bat ematea. Horregatik, zori onak Dantzarteri, urtero herrian bestelako gorputzei erdigunea hartzeko aukera emateagatik, Ondarru transfeministago bat eraikitzen laguntzeagatik. •

{ Euskal Herria digitala }

L ekeitioko hotel erreserba bakoitzak, Getariako erretegi bati buruzko iruzkin bakoitzak edota Donibane Lohizunera iristeko kalkulutako ibilbide bakoitzak balioa sortzen du. Turista ez da lurraldera iristen, haren errepresentazio plataformizatura baizik. Bisitaria bitartekari gutxi batzuen eskuetatik pasatzen da, eta haiek erabaki dute zer existitzen den, zer den ikusgai, zerk merezi duen eta zerk ez.

Plataformek ez dute errealtatea islatzen, errealtatea bera ekoitzi eta modulatu egiten dute. Guk denok doan sortzen dugun informazioaren jabe diren horiek gai dira, informazio bektoreak kontrolatuz, gure esperientziak modulatzeko. Turismoaren egungo formen dinamika harrapariak ezinbestean igarotzen dira geruza digital horretatik.

Booking edo Airbnb gisako ostatu plataformek %15-25eko komisioak ko-bratzen dituzte erreserba bakoitzeko, eta diru hori zuzenean ateratzen da lurraldetik, Amsterdamera edo San Franziskora. Diruaz gain, okupazio datuak, eskariaren mapa eta prezioen bilakara: sektorearen erradiografia osoa pla-

taformen esku dago, eta ez sektore publikoaren edo hemengo erakundeen esku.

Google Maps da botererik ikusezina: hark erabakitzen du zein saltoki existitzen den, hark ordenatzen du hiri espazioa, eta hark bideratzen du jendetza puntu berberetara. “Gaztelugatxe efektua” deitu geniezaioke, algoritmoak leku bera gomendatze horri.

TripAdvisorreko eta Googleko iruzkinen puntuazioak erabaki dezake, iritzi agregazioen algoritmo itxi baten bidez, Gasteizko jatetxe batek bizirik iraungo duen ala ez. Ospearen gobernantza pribatizatu egin da, finean. Nork erabakitzen du zer den onena? Zenbat balio du bost izarreko iruzkin batek, iruzkin faltsuen merkatu gris oso bat dagoenean?

Esperientziak ere plataformizatzen ari dira, GetYourGuide eta Civitatis dira bi adibide. Kultura bera ere plataformizatzen ari da –bisita gidatuak, dastaketak, itsasontzi irteerak–, eta horiek ere %20-30eko komisioak ko-bratzen dituzte tokiko kultur lanaren gainean. Turismo gidariek eta kultur elkarteek sortutako balioaren zati handi bat bitartekariarentzat geratzen da berriro ere.



Gorka JULIO EH Digitaleko kidea

Turismo bideratua, erauzitako lurraldea

Fenomeno hori urte osoan gertatzen den arren, udan bereziki indartzen da. Eta, paradoxikoki, uda da azpiegitura horiek mantentzeko ahalegin handiena eskatzen duen garaia. Pentsa dezagun udako egun arrunt batean: hondartzako argazkiak igo, mapak kontsultatu, musika entzun, telesail bat ikusi streaming bidez, aire girotuaren termostatoa aplikaziotik aldatu. Klima larrialdiak eta digitalizazioak aldi berean jotzen dute atea, eta biek baliabide berberak eskatzen dituzte: ura eta energia.

Euskal Herrira ere iritsi da eztabaida –edo ozenago iritsi beharko luke?–, turismoarena iritsi den moduan. Datu zentroen proiektuak mahai gainean daude Araban, Nafarroan eta inguruko beste lurralde batzuetan, kasu batzuetan trantsizio digitalaren eta digitalizazio berdearen izenean gainera. Kontua ez da digitalizazioaren aurka egitea, baizik eta digitalizazioaren kostuak nork ordaintzen eta gobernatzen dituen galdetzea. Gehienetan bertakoen izerdia kanpokoentzako balio bihurtzen da.

Tabakalerak “Bidaia ezerezera: turismoa, industria eta arte garaikidea” saioa eskaini zuen “Orotariko ekologia bat” zikloaren barruan. Yaiza Hernandez Velazquez eta Matilde Cordoba Azcarate ikertzaileek industria horien eta egungo krisi ekologikoaren arteko elkarguneak aztertu zituzten, turismoaren hedapen neurrigabeak ingurune fisikoan zein kulturean uzten duen arrastoari erreparatuz. Cordoba Azcaratek lurraldea harrapatzen duen erauzketa jarduera gisa ikertu du turismoa, eta eskema berak balio digu plataforma horiek egiten dutena ulertzeko.

MARRUMAREN DESBIDERAKETA, ANEKDOTA BAT BAINO GEHIAGO
Aipatu dugun guztiaren adibide bat baino gehiago da Donostiako Marruma herriko tabernan gertatutakoa. Gero eta turista kuadrilla gehiago ikusten dira azkenaldian, Google Maps eskuan, noraezean Marrumara iritsi nahirik. Inoiz halako toki batera iritsiko ez ziren bisitariak dira, eta hara zergatik iri-



Turista bat Donostian. Plataformek botere izugarria daukate turismoa bideratzeko. Jon URBE | FOKU

tsi diren; puntuazio batengatik. Tabernak 4,9ko balorazioa du Googlen, eta puntuazio hori ez da marketin kanpaina baten emaitza, gatazka baten ondorioa baizik.

Tabernak Palestinarekiko elkartasuna erakutsi zuen, eta, horren harira, koordinatutako eraso bat jaso zuen Google Mapsen. Turista israeldar batzuk nota txarrak jartzen hasi ziren, tabernaren ospe digitala hondoratzeko. Auzoak, ordea, erantzun kolektiboa eman zion erasoari, eta bide beretik iruzkin onak uzten hasi zen, bata bestearen atzetik. Erasoak hondoratu nahi zuen taberna Google Mapsen gailurrera igo zen. Eta orain, algoritmoak gidatuta, Palestinaren aldeko herriko taberna batera sartzen dira mundu osoko turistak, 4,9 izar horien bila.

Anekdota bat baino gehiago da, hirian nola mugiarazten gaituen eta gure ibilbideak nork diseinatzten dituen pentsatzeko balio baitu. Horretaz pentsatzeko tresna zaharrak baditugu, eta merezi du horietako batzuk berreskuratzea: psikogeografia, deriba eta desbideraketa.

Psikogeografia 1950eko hamarkadan sortu zen, Parisen, Guy Deborden inguruan –lehenik Internazionale Letristan, gero Internazionale Situazionista–. Definizioa erreza da: ingurune geografikoak, kontzienteki antolatua izan zein ez, gizabanakoen emozioetan eta jokabidean duen eragina aztertzen du. Alegia, kale batek zergatik erakartzen gaituen eta beste batek zergatik uxatzen gaituen; plaza batek zergatik gonbidatzen gaituen gelditzera eta etorbide batek zergatik pasatzera. Situazionisten tesia zen hiria ez dela neutroa: giro bakoitzak bere korronteak ditu, bere erakartze eta uxatze indarrak, eta indar horiek norbaitek diseinatzeko ditu, gehienetan merkataritzaren eta kontrolaren mesedetan.

Korronte horiek aztertze metodoa da deriba. Plangintzarik gabeko ibilaldia da, baina ez edonolako. Parte hartzaileek beren eguneroko arrazoiak alde batera uzten dituzte –lana, etxea, ohiko ibilbideak–, eta hiriari berari uzten diote eramaten, gi-

Psikogeografia 1950eko hamarkadan sortu zen, Parisen. Definizioa erreza da: ingurune geografikoak, kontzienteki antolatua izan zein ez, gizabanakoen emozioetan eta jokabidean duen eragina aztertzen du

Google Maps da gaur egungo psikogeografia, pribatizatua. Aplikazioak erabakitzen du hiriaren erakarpen mapa: zer ikusten den eta zer ez, nora joaten den jendetza eta zein kale gelditzen den hutsik



Ilustrazioa: YERAY GASCON

roaren erakarpenei jarraituz. Ez da paseoa, ez da turismoa: esperimentu bat da, hiria nola bizi dugun azaleratzeko. Bazuten beste kontzeptu bat ere, gero ospetsu egin dena: *détournement*, desbideratzea; hau da, sistemaren beraren elementuak hartu eta sistemaren beraren aurka erabiltzea.

Itzul gaitezen orain Marrumara, eta irakur dezagun anekdota kontzeptu horiekin. Google Maps da gaur egungo psikogeografia, pribatizatua. Aplikazioak erabakitzen du hiriaren erakarpen mapa: zer ikusten den eta zer ez, nora joaten den jendetza eta zein kale gelditzen den hutsik. Situazionistek aztertu nahi zituzten korronteak orain algoritmo batek sortzen ditu, eta algoritmoaren irizpideak ez dira auzoarenak: klikak dira, iruzkinak dira, izarra. Hiria nota bihurtu da.

Nota txarren eraso, hain zuzen, psikogeografia horren armak erabiltzea da: taberna mapatik ezabatzea, fisikoki ukitu gabe. Auzoaren erantzuna, aldiz, desbideratze garbia izan zen: sistemaren tresna bera hartu –iruzkinen makineria– eta alderantzizkatzea. Erasoaren energia erabili zuten taberna mapan kokatzeko.

Eta noraezean dabiltzan turistak? Alderantzizko deriba baten protagonis-

tak dira. Deriban, hiriari uzten diozu eramaten, korronte ezkutuei jarraituz; turista horiek, berriz, algoritmoari uzten diote eramaten. Eta algoritmoak, aldi berean eta nahi gabe, situazionistek amestutako egoera sortu du: beren buruko mapatik gutiz kanpo dagoen leku batera eramandu, Palestinaren aldeko herriko taberna batera. Han, nahi ala ez nahi, beste hiri bat aurkitu dute, bisitarien-tzat prestatu gabeko hiria.

Baina istripuek ezin dute metodoa ordezkatu. Marrumakoa salbuespena da; arauak dio algoritmoak beti puntu berberetara garamatzala. Horregatik, uda honetarako proposamen xume bat: egin deriba bat. Utzi telefonoa poltsikoan, atera ebaluazio sistemarik gabeko hirira, eta segi zeure senari, ez izarrei. Galdu zaitez auzo batean, sartu, tabernarik dotoreenean beharrean, deigarrien egiten zaizun horretan, galdetu bertakoei.

Deriba, gaur, ez da esperimentu poetiko hutsa, turismo plataformizatuari ihes egiteko praktika merkeena da. Ez du aplikaziorik behar, ez da erreserbarik egin behar eta ez du komisorik. Eta, nork daki, algoritmoak oraindik aurkitu ez duen zerbait topatuko duzu beharbada.



**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:** -en bidaiari aldizkaria euskaraz

Azkena, beraz lehena

**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Eider Rodriguezen “Dena zulo bera zen” liburuak bultzatu nau barnehutsaz idaztera. Banan-banan dastatu, gozatu eta iren-tsi ditut sei ipuinak. Ikusi egin ditut per-sonaiak kolpez kolpe egia aitzurtzen, Hendaia-ko hondartzan, Hondarribiko kanpinean edo Koh Taoko ostatuan, eta aunitz maitatu ditut. Uda giroko istorio hauek gauza guztien azken aldia-ri ari di-ra, eta ondorioz lehenaz. Pertsonaiek lu-rra haztakatzen dute, gero azazkaletako beltza kendu ezingo duten arren kon-taktu fresko horretan laketuz, gero eta beherago, gero eta gorputzago, isiltasu-nean eta bakardadean plazera hartuz. Bakoitzak bere kraterrak ditu, erupzioek zulatuak, edo meteorito baten talkak.

Kasualitatez, frantziar Estatuko Lem-ptegy sumendiko harri bolkaniko bat oparitu digute, zulotxo- eta ildo- betea, eta huraxe laztanduz behin bizitu nuen leherketa oroitu dut. Norbere zenbat eta gehiago kendu, zenbat eta gehiago trai- zionatu, orduan eta handiagoa zen bar- nehutsa. Ilusioz eta itxaropenez iristen nintzen hitzordura, baina gero zulo bat zabaltzen zitzaidan sabelean. Eskuak gainean paratzen nituen senez, ondoan nuenak berdin egiten zuen imitazioz, eta konpainian sentitzen den bakarda- dea ze krudela den frogatzen nuen.

Min egiten zidan egoera horretatik al- dendu ahala zuloa ixten joaten zen. Eta hala ere ilusioz eta itxaropenez presta- tzen nintzen berriz hurrengo zitarako:

«Agian gaur bai». Hala, behin hutsunea- ri aurre ez egiteagatik, egunero handi- tzen nuen zuloa pixka bat gehiago. Zo- rionez, orain ez dut zulo hori sentitzen, ahantzi zait ze garratza, estua eta hotza zen. Baina badakit nire-nirea zela.

Azkenean, magma goititu, presioa gu- txitu eta gasak askatu nituenean, leher- keta gertatu zen eta harri urtuek laba ja- rioa sortu zuten. Poliki-poliki sumendia itzali nuen eta lehen idorra zena landa- rez betetzen eta berdatzen joan zen. Ho- rregatik, nire egiten dut Laura Mintegik “Akabo” nobela zoragarrian dioena: «Barnehutsa estaltzeko modua ez da edonola betetzea. Ez luke hala izan behar. Norberaren puska gehiago sartu- ta betetzen da hutsunea». •

Itsututa

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Badu EITBk ederrak diren onda- reak izorratzeko abilezia apar- tekoa. Maite dudana abesti ku- ttun bat har dezake eta ehun egunetan matraka etengabe- an sukalde- trapu likistua bezala estutu eta estutu taldeko hedabide guztietan biraka en- tzule-ikuslea gogaitu arte.

Denak ez du balio orde- a, EITB Mara- toiaren eraginez 2019tik Itoitzen “Lau teilatu”-k eta 2022tik Gatiburen “Euri- tan dantzan” abestiak ez didate jada zi- rrararik eragiten. Baina euskal hedabide nagusiari bost axola dio eta programa batekin itsutzen denean azken tanta- raino zukutzen du inporta gabe etxeko espazioa kasik militantziagatik uzten diogula inbaditzen. Gaitz erdi litzateke

kalitateari garrantzia eman eta entzu- learen osasuna apur bat kontuan hartu- ko balute.

Bide beretik, inbaditzaile jarrera mu- turreraino eramane du eklipsearekin. Hi- ruzpalau hilabeteko traka gogaikarria eman behar zuen etxe-handiko bozgo- railu guztietatik, etengabe, belarri-be- giak eta azala gorritu eta gaixotzeraino. Hainbestekoa izan da higadura menta- la, poetiko erromantikoa ere izan zite- keen gertakari zientifikoa emaitza ko- roan oihukatutako «OOOH!» soil batera mugatu dela. Finean, azken aldi- an mu- sika kontzertuekin nola, una jende ol- deak mugiarazi dituen masa ekintza ba- tean bilakatu dute “hor egon behar dut” kultura sustatuz. Azalpen astronomi-

koak egun batzuetan zabaltzea ez al zen nahikoa?

Eguzkiari, ilargiari eta izarrei begira nor ez da inspiratzen eta erromantizis- moz blaitzen? Bada abuztuaren 12ak de- na aldatu du, batez ere hilabetetan zeru- ko protagonistak zapi lohituak bailiran erabili ostean.

Ondorengo egunetan eklipseak nola itsutasunak harrapatuta jarraitzen du- gunean Ken Zazpik eskaini dit argi izpia “Ilargia” abestiarekin; «... zuretzat ilar- gia lapurtuko nuke gauero...» eta irriba- rre maltzur bat iltzatu zait ezpainetan; ai abuztuak 12 balitz!

Izango ote naiz gai eguzkiari, ilargiari eta izarrei begira jarri eta lehen bezala inspiratzeko? •



Olatz ARBELAIZ GALLEGO

EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Kriptografia postkuantikoa eta kuantikoa, gauza bera ote?

Badira pare bat urte al-
boan dugun ordenagailu
kuantikoa hitz egin ni-
zuela. Hura martxan da-
go eta duela gutxi berria
izan da enpresei zabaldu

dietela erabilera. Bestalde, maiatzeko artikuluan Libe Morik estandar kriptografikoez hitz egin zuen. Biak bogan dauden gaiak dira, izan ere, gure eguneroko bizitzan egiten ditugun komunikazio digitalen zati handi bat, hala nola banku transferentziak, mezularitza aplikazioak, etab. kriptografiaren gainean eraikita dago. Baina zer lotura dago bi horien artean?

Konputazio kuantikoak zenbait problema oso modu eraginkorrean ebazteko aukera eman dezake eta gaitasun horrek arriskuan jar ditzake gaur egun kriptografian erabiltzen diren gako publikoko algoritmo asko. Izan ere, sistema gehienak zenbaki lehenen faktORIZAZIOA edo logaritmo diskretua bezalako problema matematikoetan oinarritzen dira. Ordenagailu klasi-koentzat problema horiek ebazteak kostu konputazional izugarria duenez, sistemak seguruak kontsidera daitezke oraindik. Ordenagailu kuantiko batek, ordea, 1990ean argitaratu zen Shor algoritmoa erabiliz, problema horiek askoz modu eraginkorra-
goan ebatzi ahal izango lituzke.

Algoritmoa badago jada baina oraindik makina falta da. Bi oztopo kritiko daude: kubit kopurua eta koherentzia-
galera kuantikoaren kontrola. Hala ere, arriskua egon badago. Izan ere, gaur egun zifratutako datuak bildu eta gor-
detzen ari dira zenbait erakunde, etor-
kizunean makina kuantikoek deszifra-
tu ahal izango dituztelakoan.

Arazo honi aurre egiteko bide bat kriptografia kuantiko gisa ezagutzen dena izan liteke; komunikazio segu-


ruak ezartzeko mekanika kuantikoaren legeak baliatzea hain zuzen ere.

Adibiderik ezagunena gakoan banaketa kuantikoa (QKD) da: bi erabiltzailek gako sekretu bat parteka dezakete, eta hirugarren batek komunikazioa zelatatzen badu, saiakera hori fisikoki antzeman daiteke. Sistema horiek, ordea, azpiegitura espezifikoak behar dituzte, eta gaur-gaurkoz ezinezkoa litzateke orokortzea.

Beste bide bat kriptografia postkuantikoa da. Azken honek ez du ordenagailu kuantikorik erabiltzen, eta ez da fisika kuantikoaren propietateetan oinarritzen ere. Ordenagailu klasi-koetan exekutatzen diren algoritmo berriak dira, baina etorkizuneko ordenagailu kuantikoek ere erraz ebatzi ezin dituzten problema matematikoetan oinarritzen direnak. Algoritmo berriek beste familia bateko problema matematikoak erabiltzen dituzte. Ezagunenak sare-egituretan

oinarritutako problemak dira, baina badira kode zuzentzaileetan, hash funtzioetan edo ekuazio polinomi-koetan oinarritutako proposamenak ere. Sistema hauek erabiltzen dituzten klabeak eta sinadurak ohiko kriptografiakoak baino luzeagoak dira eta honek biltegiratzea optimizatzea eta sare-protokoloak birdefinitzea eskatzen duen arren, lehendik ditugun sare, zerbitzu eta gailuetan txerta daitezke azpiegitura guztia berrasmatu beharrik gabe.

Horrek ez du esan nahi kriptografia kuantikoak eta postkuantikoa elkar-
rren aurkakoak direnik. Aitzitik, etor-
kizuneko komunikazio-sistemetan bi ikuspegiak osagarriak izango direla aurreikusten da: kriptografia postkuantikoa izango da erabilera orokorreko oinarria, eta kriptografia kuantikoa segurtasun-maila handiena eskatzen duten aplikazio espezifikoetan erabiliko da. •



Kriptografia kuantikoa eta postkuantikoa ez dira elkarren aurkakoak. GETTY IMAGES

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



JAVIER GALLEGO

SABINO ORMAZABAL GIDARI NATO-REN AURKA, 1986AN DONOSTIAN

Espainiako Estatua NATOn sartzea eskatzen zuen erreferenduma egin zen 1986ko martxoaren 12an, eta Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan emaitza ezezko borobila izan zen, garai hartako pultsu sozialarekin bat eginez. Katalunian eta Kanarietan ere ezezta nagusitu zen. NATOren aurkako kanpainan, Bardeako tiro eremuaren eta zerbitzu militarren aurkako protestak areagotu egin ziren, herri babes zabala izan zuten manifestazioekin. Javier Gallegok hartutako irudian, NATOn sartzearen eta Ronald Reagan Ameriketako Estatu Batuetako agintariaren bisitaren aurkako manifestazio bat ikus daiteke Donostian -agintaria 1985eko maiatzean etorri zen Espainiako Estatura-. Artikulua ilustratzen duen irudian, manifestazioaren buruan doan eta martxa irekitzen duen autoa -2CV bat- duela gutxi hil den Sabino Ormazabalena zen eta berak gidatzen zuen; Ormazabal funtsezko pertsona izan zen Euskal Herriko gizarte mugimenduetan, eta bere ondareak oso presente jarraitzen du gure herriaren memoria kolektiboan.



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortzirak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

